

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2023ko APIRILA · 321 zenbakia

Aitor Elordi gorako bidean



LANBIDE
HEZIKETA
2023-24



IKASTETXE
PUBLIKO
DOAKOA

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 8tik 26ra

GOI MAILAKO ZIKLOAK

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

HEZKUNTZA ESKAINTZA



F

EGOKITZAPEN FISIKOA

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



M

NAZIOARTEKO MERKATARITZA
GARRAIO ETA LOGISTIKA

MERKATARITZA
JARDUERAK



A

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
*+ Administrazioa eta Finantzak
eskaintza partziala arratsaldez.*

ADMINISTRAZIO
KUDEAKETA



I

SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN
ADMINISTRAZIOA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
PLATAFORMA ANITZEKO
APLIKAZIOEN GARAPENA

SISTEMA
MIKROINFORMATIKOAK
ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN



Gaia: Maitasun kantua.

Ama-alabak daude diskordiarekin

(Entzuteko: www.alboka.es)

Ama-alabak daude diskordiarekin, esaten goaz nola nahi dubenak jakin. Ezkontzen utzi nahi ez gustokuarekin, ama ez naiz jarriko zuk esanarekin!

Amak alaba nahi du txit ondo ikusi, neketan diralako egin eta hasi. Aplikatu nahi nuke zu non ondo bizi, ez txorakeriarako ezkontzarik hasi.

Ezkondu bihar baden hartzan moduzkua, ez horrela tunante dabiltzan modukua. Jose hartu izanda bai zeukan dirua, harekin egingo den nahi dezan moduan.

Tomas ezkontutzeko maiz ailegatzen zat, ama mutil polita iduritutzen zait. Txit kariño handia badauka neretzat ta konformatzen gera biok alkarrentzat.



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Estibalitz
González, Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dabid argindar/Aspe.

LAGUNTZAILEAK:

Kepa Antxia, Ermua BHI, Antonio
Hernández 'Cuco', Patxi López,
Valentin Mugarza, Jon Saez eta Libe
Solozabal.

ARGAZKIAK:

Imanol Alvarez, Kepa Antxia, Pilar
Bilbao, Ermua BHI, Artarraí MT, Ander
Garcandia, Estibalitz González,
Kaltxango AEK Euskaltegia, Ainara
Mallagaray, Valentin Mugarza, Marga
Pérez, Olga Olañeta, Nahia Ruiz Albi-
zuri, Stai Zitto eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Irene Basagoiti, Piedi Eizagirre eta
Nora Sanchez.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain
hartzan aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Ander Garciandia · Zeelanda Berria

“Maoriek oso kultura interesgarria dute, gustura nago haiekin”

Herrialde berriak ezagutzeko eta bidaiatzeko nahiak eraman zuen Ander Garciandia ermuarra Ozeaniako lurretara. Lehen uneak Aucklanden igaro zituen arren, denbora gehiena Hastingsen eman du.

Testua **LIBE SOLOZABAL**

Zer dela eta joan zinen Zeelanda Berrira?

Betidanik gustatu izan zait bidaiatzea, eta kanpora bizitzera joateko gogoak nituen. Espainiako Gobernuak zenbait herrialderekin akordioak ditu, beraz hortaz baliatu nintzen. Hainbat aukera nituen, besteak beste, Kanada eta Australia, baina hona etortzeko aukera lortu nuen.

Harrera ona izan zenuen?


Etorrerako bidaia oso luzea izan zen, 34 ordu eman nituen guztira hegazkin barruan. Bi egun behar izan nituen munduaren beste puntara iristeko. Heldu bezain laster hasi ziren komeriak: ministroak dimisia aurkeztu zuen eta ondoren, zikloi bat izan genuen

“Heldu bezain laster hasi ziren komeriak: ministroak dimititu zuen, zikloi bat izan genuen eta urak Auckland hartu zuen”

eta urak hartu zuen Auckland hiria. Beraz, hasierako egunak ez ziren oso lasaiak izan.

Nola moldatu zara egokitzeke?

Lurreratu bezain laster furgoneta bat erosi nuen, he-





mendik mugitzeko modurik onena iruditzen zitzaidalako. Jarraian, lana bilatzen hasi nintzen eta, egia esan, berehala aurkitu nuen sosak ateratzeko modua. Hainbat lan izan ditut orain arte: logelak atontzen hasi nintzen eta mahasti batean lanean aritu naiz. Une honetan geldialdia dago uztako lanetan, baina laster bueltatuko naiz.

Herrialdea ezagutzeko aukera izan duzu?

Zeelanda Berria bi irlak osatzen dute, iparraldekoak eta hegoaldekoak. Momentura arte iparraldean ibili naiz, eta aurrerago hegoaldekoa ezagutzeko asmoa daukat. Aste barruan lan egiten dut eta asteburu batzuetan mendira joaten naiz edo uharteko txoko desberdinetara.

Zer hizkuntza erabiltzen duzu?

Ingelesez egiten dut, baina hemen ingelesez eta maorieraz hitz egiten dute. Ingelesa jende gehienarekin komunikatzeko hizkuntza den arren, apur bat arraroa da, agian jatorrizko hizkera maoriera delako eta doinua eta hitzak nahasten dituztelako.

Zerk eman dizu atentzioa?

Maoriak ezagutzeak. Munduko txoko guztietako jendea ezagutzen ari naiz orokorrean, eta kanpotar askok egiten dugu lan elkarrekin, baina maoriak ez nituen

“Berehala aurkitu nuen sosak ateratzeko modua, eta hainbat lan izan ditut orain arte”



Ander Garcandia Tongariro National Parkeko Tawhai Falls-en bisitan.

ezagutzen. Oso kultura interesgarria daukate eta eskuzabalak eta jatorrak dira, haiekin gustura egoten naiz. Behin bazkaria prestatu ziguten, *hāngi* delakoa, labe natural bat balitz bezala lur azpiko lurruna aprobetxatuz.

Zerbait botatzen duzu faltan?

Familia eta etxea batez ere. Nahiz eta asko igartzen duan ere lagunuen falta, kalera ateratzea eurekin zerbait hartzera ondo dator beti.

Ermera itzuliko zarela uste duzu?

Bai, itzuliko naiz. Ez daukat argi, ordea, denbora luzean geratuko naizen, hona etorri naizen moduan beste herrialde batean tarte batean egoteko ideia ere gustatzen zaidalako. Hala ere, bi urtetarako eszedentzia eskatu nuen lanean, beraz ordura arte ez naiz Ermutik agertuko.

“Azken hiru urteak ez dira errazak izan inorentzat”

STAI ZITTO · Musika taldea



Duela hamar urte sortu zen Stai Zitto taldea, eta ekainaren 3an agur esango du betiko. Egun horretan kontzertu berezia eskainiko du plazan, azkena, eta bertan entzun ahal izango da taldeak sortu berri duen *Errua* abestia.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Nortzuk zarete eta nola sortu zen Stai Zitto taldea osatzeko ideia?

Orain dela hamar urte elkartu ginen Stai Zitto proiektua sortzeko. Oso gazteak ginela ezagutu genuen elkar: Musika Eskolan batzuk, Musikal Araba-ko gitarra klaseetan beste batzuk.. Ermua herri txikia da, zentzu batean, beraz oso naturala izan zen. Aurretik beste musika talde batzuetan jotzen genuen, eta denborarekin Stai Zitto proiektuari hasiera eman genion. Pertsona asko pasatu dira taldetik baina gaur egun Danel, Axier, Andoni, Xabi, Julen, Asier, Josu, Gorka eta Maialen gara.

10 urte! Zein izan da urte hauetan izan duzuen unerik gogokoena?

Momentu berezi bakarra aukeratzea oso zaila da guretzat. Izan ere hamar urteotan gauza asko pasatu dira. Momentu oso onak eta ezberdinak bizi izan ditugu grabaketetan, kontzertuetan eta entseguetan. 2015ean adibidez, Gaztea Maketa Lehiaketa oso berezia eta garrantzitsua izan zen. Gure lagun guztiek babestu gintuzten. Bilboko Antzokian izan zen finala eta Ermutik bi autobus joan ziren. Kontzertuetan bizi izan ditugun bizipenak ere garrantzitsuak dira. Talco, La Pegatina eta Sutagar bezalako taldeekin oholtza partekatzea pasada bat izan da! Musikaz gain, gainera, kontzertu aurreko eta osteko momentuen inguruan milaka istorio kontatu ditzakegu, baina horretarako liburu bat idatzi beharko genuke kar-kar-kar. Diskoen grabaketak ere





oso bereziak izan dira. Nahiz eta oso talde txikia izan, hasieratik kalitatezko grabaketen aldeko apustua egin genuen. Horregatik gure lehenengo diskoa grabatzeko Haritz Harreguioren Higain Estudioira joan ginen. Oso-osoz gazteak ginen, eta flipatu genuen estudio ho-

“Taldea oso txikia izan arren, kalitatezko grabaketen aldeko apustua egin genuen hasieratik”

rrekin! Kristoren nahasketa mahaia, anplifikadoreak, mikrofonoak... itzela!

Nolatan hartu zenuten taldea uzteko erabakia?

Ez dago arrazoi bakar bat. Hainbat faktore elkartu dira erabaki hau hartzera eraman gaituztenak. Azkenengo hiru urteak ez dira izan errazak inorentzat. Alde batetik, pandemiak min handia egin du gu bezalako talde txikietan: entseatzeko arazoak, aforoak, kontzertu falta... Gainera, mentalki kide batzuk asko sufritu genuen eta horrek sorkuntza prozesuan eragin zigun. Bederatzi pertsona gara taldean. Handitzen goaz eta



AMALUR
FISIOTERAPIA

6 8 8 6 1 9 8 9 6
zeharkale 12 bajo
4 8 2 6 0 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675



ANTIXITIKETAN AISIALDIA

- Diputazio kalea, 8 - 10, behea.
- PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA**
- PSIKOTERAPIA LUDOTEKA**
- ERREFORTZU ESKOLARRA**

📞 943 576 124 🕒 10.00 - 13.30
📞 747 453 607 🕒 15.30 - 19.30

📍 Antixitxiketan 📧 Info@antixitxiketan.com



kide bakoitzaren egoera pertsonala aldatuz doa lanagatik, familiagatik edo dena delakoagatik. Hau dela eta uztea erabaki genuen. Ez genuen gehiago sufritu nahi eta denok ondo bukatu nahi genuen.

Agur esateko abesti bat sortu duzue. Zergatik Errua abestiaren titulua?

Errua-k zerbaiten agurrari buruz hitz egiten du, doluari eta ondoren datorren onarpenari buruz. Galerari buruzko hausnarketa bat da, honen ezinbestekotasunari buruzkoa, eta honen onarpenaren gaineko hausnarketa egitera bultzatu nahi gaituena. Hamarkada osoko musika ibilbidea ospatu nahi izan dugu kantu honekin. Izan ere, abesti honen bitartez, gure bizitzako garai honi amaiera eman nahi diogu, eta aldi berean, beste proiektu batzuei atea ireki. Bide batez, taldeak eskerrak eman nahi dizkie urte guzti hauetan bidelagun izan ditugun pertsona guztiei eta batez ere publikoari: zuen babesik gabe egindako bidea ez litza-

“Errua-k agurrari buruz hitz egiten du, doluari eta ondoren datorren onarpenari buruz”

tekeelako posible izango! *Errua* Spotifyn, Youtuben eta plataforma digitaletan eskuragarri dago.

Hasieratik zenekiten despedida kontzertu bat egin-gu zenutela?

Instagramerako post baten bitartez albiste hau zabal-tzea oso eskasa iruditu zitzaigun, beraz, Ermuko Pla-zan kontzertua egiteko proposamena egin genuen eta onartu egin ziguten: ekainaren 3an Stai Zittoren azkenengo kontzertua ikusteko aukera egongo da. Oso kontzertu berezia izango da, sorpresa pila bat prestatzen ari gara-eta. Horietako bat, Orihen taldea gonbidatu gisa izatea da, urte askotan bidelagun izan dugun taldeetako bat, alegia. Oso pozik gaude haiekin azken aldiz oholta partekatzeke aukera izateagatik. Amaitze ko, urte guzti hauetan zuen etxea zabaldu, laguntza eskaini eta zuen eskuzabaltasuna erakutsi diguzuen guztiei, zaudeten lekuan zaudetela, eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotzez. Gonbidatuta zaudete azkenengo kontzertura!



Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatiapablo.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

Vértigo Rockek XV. urteurrena ospatuko du aurten

Vértigo Rocken XV. edizioa maiatzaren 12an eta 13an burutuko da, eta data berezi horretan, bi eszenatoki egongo dira. Karteleran Ermuko talde gehien lortu nahi izan dituzte antolatzaileek, eta horrez gain, Eskilarapeko Irratian musika jaialdi honen historiari errepassoa egiten ari dira, nahi duenak entzuteko aukera duelarik.

Maiatzak 12, ostirala:

18:00 Kalejira elektrotxarangarekin.

21:00 Bichorraro eta Waah! taldeen kontzertua plazan.

Maiatzak 13, larunbata:

15:50etik aurrera kontzertuak Betiondoko apartokalekuan.

Kontzertuen hasiera: Alboka Musika Eskola.

Jarraian:

Ktulu
Asgarth

Brothers till we die
Adrenalized



Yugular
Shöck
Storbais o
Ekinocio
Makis37

Bones of Minerva
Painapple
Orihen
Indabak



LANBIDE
HEZIKETA
FORMACIÓN
PROFESIONAL

HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILA

- Mekanizazioa
- Mantentze-lan elektromekanikoa

GOI MAILA

- Fabrikazio mekanikoko diseinua
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Mekatronika industrial

ESPEZIALIZAZIOAK

- Fabrikazio aditiboa
- Errendimendu handiko mekanizazioa
- Makinen doitze eta prestakuntza aurreratua

ATE IREKIAK
Maiatzak 6
Maiatzak 17



GORDE TOKIA!



943 74 41 32

zikloak@imh.eus

www.imh.eus/zikloak

“Hemendik aurrera lortzen dudan guztia ongi etorria izango da”

AITOR ELORDI • Pilotaria



Duela hilabete eskas irabazi zuen Aitor Elordi mallabitarrak eskuz binakako txapelketa, Jose Javier Zabaletarekin batera. Atsedena hartu barik, buruz buruko txapelketari ekin dio, eta final laurdenetan dago jadanik.

Testua **DORLETA VIDAL** / Argazkiak **VALENTIN MUGARZA**

Topatu diozu lekua txapelari dagoeneko?

Bai, etxean daukat, bistara!

Nori eskaini diozu garaipena?

Nire ibilbide guztian zehar ni laguntzeko prest egon diren guztiei, batez ere etxekoei eta aititeri bereziki, berari esker hasi nintzelako pilotan, eta uste dut harro egongo dela. Gogoan ditut ere txapel hau lortzeko nirekin batera lan egin duten pertsona guztiak, enpresako intendenteak eta nire prestatzaile fisikoa den Gontzal Urionabarrenetxea ere.

Lehen mailan txapela irabazteak zer esan nahi du zuretzat?

Egindako lan guztiari saria da. Nolabaiteko *katxea* ematen du ere, eta bermatzen du hemendik aurrerako partiduak maila onekoak izango direla.

Duela zazpi urte debutatu zenuen pilota profesio-

nalean, eta aurten mailarik altuenera heldu zara...

Bai, azken zortzi hilabete hauetan pilotari onenen kontra jokatzeko ari naiz. Ez bakarrik jokatzeko, baizik eta irabazteko ere. Zalantzarik gabe, nire ibilbideko momenturik onenean nago.

Ibilbide honetan inoiz pentsatu izan duzu pilota lagatzea?

Bai, hasieran batez ere. Lehenengo bizpahiru urteak oso gogorak izan ziren, mailara egokitzea ez zitzaidalako erraza egin. Astea joan eta astea etorri, ez duzunean argi izpirik ikusten, gozatu baino gehiago sufritu egiten duzu. Garai hartan pilota lagatzea pasatu zitzaidan burutik, baina beti pentsatu dut lana egiten banuen aurrera egingo nuela. Apurka-apurka egoerari buelta eman nion, eta hemen gaude.

Zer nolako garrantzia du sasoian egotea eta sendo-

ileapaindegia
Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00 - 12:00 15:00 - 19:00
Larunbata 8:30 - 13:00

943 170474

6888 19336

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



tasun mentalaren arteko orekak?

Uste dut bizitzan oro har, eta kirolean eta goi mailako kirolean batez ere, pisu handia duela mentalki nola sentitzen zaren. Fisikoki %100ean egon arren, mentalki ondo ez bazaude, ez duzu maila emango. Kirolean dauden momentu zailenetan, eta ez hain goxo horietan, aurrera egiteko gaitasuna izan behar da.

Zeintzuk dira zure indarguneak?

Uste dut eguneroko lanean jartzen dudana kemena. Nahiz eta gauzak ez irten nik nahi dudana bezala, hurrengo egunean entrenatzera noa, egoerari buelta emateko esperantzarekin. Momentu zailenetan dudana mentalitatea nabarmenduko nuke.

"Kirolean dauden momentu zailenetan, aurrera egiteko gaitasuna izan behar da"

Bikoteka jokatzean, garrantzitsua da bikotekidearekin konexioa izatea?

Garrantzi handia du. Bion ardura da partidua aurrera ateratzea, eta biak sasoiaren egoteaz gain, ezinbestekoa da harreman ona izatea.

Nolakoa izan zen Zabaletarekin harremana?

Ona. Ondo konpontzen naiz enpresakide guztiarekin, nahiz eta batzuekin beste batzuekin baino gehiago izan, normala denez.

Zerbait erakutsi dizu txapelketa honek?

Bai. Lau hilabeteko txapelketa da, eta bai bikotekideak bai nik hasieratik genekien momentu onak eta txarrak izango genituela. Hasierako buelta guk espero baino askoz hobeto irten zitzaigun, baina gero etorri ziren egoera batzuen aurrean genituen iritzi ezberdinak. Guzti honi esker ikasi dut nire pentsamenduak bikotekidearekin partekatzen, gure artean hitz egiten eta bata besteari ikuspuntua errespetatzen. Horri esker ondorio positibora heltzen ginen beti, eta elkar-ulertze hori agerian geratu da kantxan ere.

Zorteak eragina dauka txapelketa batean?

12 MALLABIAN ZER?

Bai, partidu batzuk txikikerien ondorioz erabakitzen dira, eta txikikeria horiek alde edo kontra izateak partiduaren emaitza erabaki dezake. Dena den, ez duzu txapelketa bat irabaziko zortea alde izan duzulako.

Mallabira bueltan ongietorria egin zizuten herrikoek...

Bai, finalera heltzeak ilusioa piztu zuen herrian, eta omenaldia oso polita izan zen. Asko disfrutatu genuen denok.

Zaleek badakite zer nolako lana dagoen irabazi duzun txapelaren atzean?

Pilota jarraitzen dutenek, eta nire ibilbide osoa jarraitu dutenek, badakite bai. Badakite zenbat lan egin behar izan dudan, eta zenbat partidu irabazi behar izan ditudan hona heltzeko. Izan ere, orain dela zortzi hilabete ez nuen pentsatzen lehen mailako txapelketa bat jokatzeko aukerarik izango nuenik, eta orain hemen nago txapelarekin.

Hiru aste inguru igaro dira txapela lortu zenuenetik.

Oinak lurrean jartzeko denbora izan duzu?

Bai, lainotik jaitsita nago dagoeneko. Txapelketa bukatutakoan atsedena hartzeko asmoa neukan baina, azken momentuko ezusteko batzuk direla-eta, buruz buruko txapelketan parte hartu behar izan dut. Txapelketa honetan parte hartu behar izateak asko lagundu dit lainotik jaisten, eta momentu honetan, txapela irabazi aurretik nengoen leku berean sentitzen naiz.

Gogotsu ekin diozu eskuz eskukoari?

Bai, onena emateko beste aukera bat delako. Mentalitatea segituan aldatu behar izan nuen eta lanerako eta gerra ematen jarraitzeko prestatu.

Nahiago duzu bikoteka edo bakarka jokatzea?

Kontutan izanda urtean zehar bikoteka jokatzeko direla partidu gehienak, modalitate horretan hasi nintzen

“Momentu honetan, txapela irabazi aurretik nengoen leku berean sentitzen naiz”



Jokin Altuna pilotariak (ezk.) Elordiren ongietorrian parte hartu zuen.

gusturen sentitzen. Banakako modalitateetan gabezia gehiago nituela sentitzen nuen. Hala ere, egindako aldaketa fisikoari esker, hobeto sentitzen naiz modalitate horietan ere. 2020an Lau t'erdiko txapela irabazi nuen bigarren mailan, baina buruz burukoa, kantxa osoan, exijenteagoa eta zailagoa da. Gainera goi mailako pilotariak daude, baina tira, daukagun dena emango dugu.

Nola egiten diezu aurre maila goreneko pilotarien aurkako partiduei?

Erronka bezala hartzen ditut, eta gustatzen zaizkit. Sentitzen dut irabazteko gai naizela, eta orain arte partidu garrantzitsu horietan garaile irten naiz.

Momentu honetan buruz burukoan final laurdenetan zaude. Nolabaiteko presioa sentitzen duzu?

Ez, lasai nago. Urte oso ona daramat, eta hemendik aurrera egiten dudan guztia ongi etorria izango da.

Baduzu txapela irabazteko faboritorik?

Altuna esango nuke, azkeneko partiduetan maila oso altuan eta sentsazio onekin ari delako. Dena den, astetik aстера gauzak asko aldatzen dira.



MUSIKA
ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Mallabiko Udalak aerotermita bidezko berokuntza-hozte sistema instalatu du eskolan

Mallabiko Udalak aerotermita bidezko berokuntza- eta hozte-sistema jarri du eskolako gimnasioan, berokuntza-sistema eraginkor eta iraunkor bat emateko helburuarekin. Instalazioa egin ahal izateko 23.070,60 euroko inbertsioa egin du guztira, eta 13.842,41 euroko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzaren "Udalaguntza 2022" programatik. Aerotermita energia mota bat da, inguruneke airean bero moduan biltegitratzen dena eta espazio bat berotzeko edo hozteko erabili daitekeena. Espazio hori jasangarriagoa da eta eraginkortasun energetikoa hobetzen du, Udalaren webgunean irakurri daitekeenez. Aerotermita-sistemek kontsumoa eta CO2 emisioak murrizten dituzte, eta energia-iturri agortezina erabiltzen dute, airearen ingurumen-energiaren % 77 ere doan ateratzen duen teknologia garbia baita. Horri esker, Mallabiko eskolako gimnasioan aire/ur bero-ponpa bat instalatu da, itzulgarria eta eraginkortasun handiko etiketa energetikoa duena.

Hainbat mallabitar Ibizan korrikalari

Esti Arrizabalaga, Olga de Miguel, Oihane eta Ainara Mallagaray, Idurre Galarraga eta Iratxe Pradera mallabitarrek eta azken honen Errente-



riako bi lagunek aurtengo Ibizako Marathonean parte hartu dute. Ilusio handiz prestatu zituzten bertara joan aurretiko entrenamenduak eta, aukera zegoenez distantzia desberdinak egiteko, hiruk 12 kilometroko lasterketa korritu zuten eta gainontzekoek 22 kilometrokoa. Pozarren denek amaitu zutelako proba, ibilbidean zehar bero handiari aurre egin behar izan bazioten ere. Errepikatzeko gogoa piztuta, beste maratoni batzuei begira daude, joandako guztiek distantzia luzekoa egiteko erronkaren harra barruan sartuta.



HEZKUNTZA ESKAITZA 2023/24

Hazi, hezi, **Mekan** ikasi!



AURREMATRIKULA
Maiatzak 8-26ra.



bulegoa@meka-elgoibar.eus
Telf. 943 748 019

www.meka-elgoibar.net



MEKA ALBITZURI ERAIKINA
Albitzari guneak, 24
48970 ELGOIBAR
Gipuzkoa

MEKA EZENARRIO ERAIKINA
Aurrelari kalea, 2
48970 ELGOIBAR
Gipuzkoa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- METAL ERAIKUNTZAK
- GIZARTERATZEA
- GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA
- HAUR HEZKUNTZA
- DIETETIKA
- AUTOMOZIOA
- KOMUNIKAZIO BITARTEKOTZA **BERRIA!**

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ERIZAINZAREN LAGUNTZA
- MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
- KARROZERIA
- IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA

ESPEZIALIZAZIO KURTISOAK

- IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN SISTEMEN MANTENTZE ETA SEGURITASUNA **BERRIA!**
[GOI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTISOA]

- IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HIBRIDOEN MANTENUA **BERRIA!**
[ERDI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTISOA]



Kastotxuaneko etxearen osteko alde, Izelaieta 6an, trenerako bidetik ikusita. Argazkilaria: Marga Pérez.



“Ireki begiak, erne belarriak” jarduera maiatzean burutuko da berriro ere

Ermuak bere inguru naturalean duen bioaniztasuna ezagutzeko eta balorean jartzeko helburuarekin, iazko neguan jaio zen ekimena errepikatzen asmoa du Artarrai Mendi Taldeak. Aurrekoaren ibilbide beretsua egongo da baina, urtaro desberdina izanda, naturak eskaini ahal duena erabat desberdina izango da: txoriak txitatze sasoian, landarak loratzen, zuhaitzetako kimuak erneta... Ume zein helduei zuzenduta, ibilbidea Plazan hasiko da, Ongarai, Txara, Egurmendi eta Errekalde zeharkatuko ditu, eta Baldespinako parkean amaituko da. Ingurumenaren aditua den Mikel Yarza ermuarrak gidatuta, jarduera maiatzaren 7an burutuko da eta plazan emango zaio hasiera 9:30ean.

Maiatzean zabalduko da “Oporretan jolas” udalekuetan izena emateko epea

Lehen Hezikuntzako ikasleek “Oporretan jolas” udalekuetan parte hartzeko aukera izango dute ekainaren 26tik uztailaren 21era arte. Lau aste horietako



bakoitzean jarduera ezberdina burutuko da: aisialdi ekintzak, kirolaz blai, zirku eskola eta steam tailerrak, hain zuzen ere, 9:00ak eta 13:30ak bitartean (aisialdi ekintzek beste ordutegi bat izango dute). Matrikula astea egin beharko da, eta aste bakoitzaren prezioa 35 euro izango dira ume bakoitzeko (28 euro anai-arrebeek izena ematen badute edo familia ugaria bada). Udal Euskara Sailak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako ekimena da hau, eta izena emateko epea maiatzaren 4a eta 12a bitartean egongo da zabalik.

Ferreteria ANBOTO Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

ALTALDI Correduría de Seguros, S.L.

ermua@altaldi.com info@inmojs.com

INMOBILIARIA J.S. www.inmojs.com

Probaleku 8 · ERMUA 943 17 01 43 · 943 17 18 02

Martxan da Debegesaren "Make in!" programaren bigarren edizioa

Iazko arrakastaren ondoren, asko izan dira Debegesak sus-tutatuko "Make in!" programaren bigarren edizio honetan parte hartzeko interesa erakutsi duten *startup*ak. Azkenik, lau enpresa sortu berri hautatu dira Debabarreneko azele-razio industrialeko programan parte hartzeko: IRBIS Power Systems, Swearit, KOOM eta DNAK. Horiek guztiak industriari lotutako enpresa-ekimenak dira, eta gutxieneko produktu bideragarria dute. Prozesuan zehar, parte-har-tzaileek aholkularitza-saioak izango dituzte lehen mailako aholkulariekin, baita eskualdeko enpresetara bis-itak ere, industria-lehia-kortasuna hobetzeko eta hautatutako *startupe*kin lankidetzaz posibleak sortzeko. Saio horietan hainbat ezagutza-eremu landuko dira, bai modalitate presentzian, eta baita telematikoa ere. Bilere-tan aholkularitza-saioak jasotzeaz gain, finantza-zio alternatiboari buruzko txostenen ziklo baten murgilduko dira parte-har-tzaileak, eta, horrez gain, prozesuan lagunduko dien mentore bat izango dute.



Arg.: Ermuko Udala.

Kultura Sailak Santixauetako kartel lehiaketa antolatu du

Dagoeneko jakitera eman dira Santixauetako kontzertuetan joko duten musikarien eta taldeen izenak: Álvaro de Luna, Merina Gris, Nogen eta Puro Relajo, eta aldi berean jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa abiatu da. Lehiaketara aurkezten diren kartelok aipatu beharko dituzte, gaiaren aldetik, herriko jaiak, edozein ikuspegitik dela ere. Era berean, "Santia-gos 2023 Ermuko Jaiak" leloa jaso beharko dute. Edozein teknika erabil daiteke kartela egiteko, eta lanak kultura@udalermua.net helbide elektronikora bidali beharko dira maiatzaren 10a baino lehen. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du.

Jon Albizu
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOULKULARITZA ERMUA

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer

ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

BIZI EUSKARA HURBILETIK



2023

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak
Etxe ondoan
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko



ONLINE IKASTAROAK

A1, A2, B1, B2, C1, C2



673 200 100 / 946 464 000

www.aek.eus

KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

IKASTARO TRINKOAK: EKAINA | UZTAILA | IRAILA

Ekainaren 5etik 30era (80 ordu). Izena emateko azken eguna: maiatzaren 19a

Ekainaren 26tik uztailaren 21era (80 ordu).

Izena emateko azken eguna: ekainaren 16a

Irailaren 1etik 28ra (80 ordu). Izena emateko azken eguna: uztailaren 14a

Irailaren 18tik 29ra (30 ordu). Ikasturtean zehar ibilitako ikasleentzat

4 ORDUKO IKASTAROAK.

Goizez zein arratsaldez
Diruz lagunduak

ADI!

23-24 ikasturterako AURREMATRIKULA ere
zabalik egongo da ekainaren 28ra arte.

Zearkale 16, beheka 48260 Ermua

Kaltxango@aec.eus / 688 746 480 edo 607 623 961



Cosme Cortazarren heriotzaren 30. urteurrena bete berri da

Apirilean 30 urte bete dira Cosme Cortazar aktore ermuarra hil zenetik (1947-1993) eta, hori dela-eta, apirileko zine klubeko saioretako batean 1990. urtean grabatu zen *Jericó* pelikula ikus-tereko aukera egon da. Horrek ikusle ugari bildu ditu. *Drogetenit-urri* aldizkariaren 310. zenbakian, Cosmeren arreba den Piedi Cortazarrek haren bizipenen atzerabegirakoa egin zuen.

Abian da Ermua Hiria Literatur Lehiaketaren XXIX. edizioa

Ermuko Kultura Sailak, Udal liburutegiaren bitartez, Ermua Hiria Literatur Lehiaketa antolatu du, 2006a baino lehen jaio diren pertsona guztiei zabalik dagoena. Parte-hartzaile bakoitzak obra bakarra aurkeztu ahal izango du lehiaketako kategoria bakoitzeko, eta obra originalak izan beharko dute, modalitate hauen barruan: narratiba euskaraz, narratiba gaztelaniaz, poesia euskaraz eta poesia gaztelaniaz. Lanak lehiaketara aurkezteko hiru bide daude: posta elektronikoz bidez, biblioteca@udalermua.net helbidean; posta arruntez, Ermuko Udal liburutegia - Goienkale z/g - 48260 Ermua (Bizkaia); edo eskura, leku berean. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 2a izango da.

berbetan
jardunaldiak
euskararen gaineko gogoetak

LOBIANO
KULTUR
GUNEAN

MAIATZAK

8

astelehena
19:00etan



AMELIA BARQUIN Mondragon Unibertsitateko kultura arteko hezkuntzaren irakaslea da.
DORLETA VIDAL kazetaria eta *Drogetenit-urri* aldizkariaren arduraduna da.

DORLETA VIDALEk elkarrizketa egingo dio AMELIARI **euskarak, generoak eta jatorriak eskolan duten eraginaren inguruan**. Ostean, parte-hartzaileok ere galdetu ahalko dugu.

ERMUA 2023

antolatzailea



babeslea





Al Anon elkarteko bileretan erabiltzen diren liburuetakoko batzuk.

Alkoholak familia ere suntsitzen duenean

Berrogei urte baino gehiago dira Ermuko Al Anon elkarte lanean hasi zenetik. Alkoholismoa pairatzen duten pertsonen senideei eta lagunei laguntza eskaintzen dion talde honen oinarrietako bat anonimotasuna da, eta astelehenero hitzordua dute Izarran.

Testua **DORLETA VIDAL**

Ikerketek diotenez, alkoholiko bakoitzak ondorioak eragiten ditu bestelau pertsonen bizitzan. Horiek horrela, Alkoholiko Anonimoen elkarte 1935ean sortu eta hamasei urte geroago, 1951n, Al Anon eta Alateen elkarteak sortu ziren AE-Betan (alkoholikoen senideei eta gazteei zuzendutako taldeak, hurrenez hurren). Gaur egun, 24.000 Al Anon talde daude munduan barrena, horietako bat Ermuan.

Ermuko taldeak Oiz du izena, eta astelehenero biltzen da Izarran 18:30etik 20:00etara, Udalak utzitako lokal batean. Bilera ireki horie-

tan bospasei lagunek parte hartzen dute gaur egun. "Alkoholismoa kutsatu egiten da, eta gaixotasun hori duten pertsonen inguruan daudenak gaixotu egiten dira", esan dute taldekideek. Haien esanetan, alkoholiko batekin bizitzeak kalte egiten du, suntsipen emozionala dakar, eta harekin batera autoestimua galtzen da, besteak beste. Hori horrela dela onartzea ez da erraza, eta lotsa sentitzen dute askotan, horregatik, bilera hauetara doazenean konpromiso bakarra hartu behar dute: bileretan ikusten eta entzuten duten gutzia bertan gel-

ditu behar da.

Talde horietan hamabi urratsetan oinarritutako programa eramaten dute aurrera, literatura irakurri eta bizipenak partekatzen dituzte. Eta ekintza horiei esker hasten dira hobeto sentitzen. "Oso garrantzitsua da egoera berean daudenekin tarte bat konpartitu ahal izatea, haiek bakarrik ulertu dezaketelako nola sentitzen zaren. Familia bat gara, eta elkarri laguntzen diogu", adierazi dute.

Emakumezkoak nagusi

Ermuko taldean dauden kide guztiak emakumeak dira, eta ez da kasualitatea. "Orain arte emakumeek hartu izan ohi dute zainketa lanen ardura, eta alkoholismoa gizonezkoetan eman da batez ere —azaldu dute elkarteko kideek—. Hau aldatzen doa, eta joera da gero eta emakume gehiagok alkoholismoa pairatzea, eta gero eta gizonezko gehiagok Al Anon taldeetan parte hartzea". Horrez gain, badago beste talde bat, Alateen, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoena.

Bizkaian beste sei talde daude, eta euren artean harremana daukate, nahiz eta talde bakoitza bere kasara antolatzen den. Haien gainera Bartzelonako egoitza dago, eta bertara jo dezakete laguntza eske. Badago ere mundu mailako antolakuntza bat, baina hala ere taldea guztiz independentea da: ez du onartzen inolako dirulaguntzarik eta ez dago inolako talde politikoeekin ez erlijioekin lotuta. Kideen borondatezko ekarpen ekonomikoek esker finantzatzen da.

Talde honetan parte hartu nahi dutenak Izarrako eraikin zaharrera hurbildu daitezke astelehenetan, 18:30ean. Informazio gehiago jaso nahi dutenek, 611 055 805 telefonora deitu dezakete.



Arantzi Perosanz (ezk.) Euskal Biruseko saria jasotzen.



Julen Molinilla Estefano AEK-ko otzararekin.

joateko aukera izango du: Arantzi Persosanzek, hain zuzen ere.

Kaltxango AEK Euskaltegiak ere dinamikarekin bat egin nahi izan du. Ikasleen talde bat sortu da bertan aurrenekoz, eta 40 bat lagunek parte hartu dute eguneroko galdera sortari erantzuten. Amaitutakoan, AEK-ko produktuekin osatutako otzara zozketatu da asteko irabazle guztien artean.

Tortila pintxoak institutuan

Bestalde, ez da lehen aldia Ermua BHI institutuko ikasleek zein langileek joko honetan parte hartzen dutela. Azken edizioan 136 lagun aritu dira, eta asteko irabazleek DBH4ko ikasleek kozinatutako tortilla pintxo ederrak jaso dituzte. Hurrengo denboraldia noiz hasiko zain dira, baina bitartean "Egunean berba bat" ekimena jarri du abian ikastetxeko Euskara Batzordeak. "Egunero, Ermuan erabiltzen den berba edo esamolde bat agertzen da sarrerako pantailan, bertoko hizkera bultzatzeko asmoarekin", azaldu dute irakasleek. Ekarpenak egin nahi dituztenek helbide honetara idatzi dezakete: ekinez_euskarabatzordea@ermuabhi.eus.

Ermuarrez osatutako hainbat talde aritu dira Egunean Behinen

Martxoaren 26an bukatu zen Egunean Behin jokoaren 11. denboraldia, eta, Euskal Birusak sortutako taldeaz gain, ermuarrez osatutako beste talde asko aritu dira lehian, tartean Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Ermua BHI Institutuak sortutakoak.

Testua **DORLETA VIDAL**

Gora doa Euskal Birusa elkarteak Ermuan Bagara jokoan sortu duen taldearen parte-hartzaile kopurua. Azken edizio honetan 250 lagun

batu dira taldean, eta batezbesteko 170 lagun aritu dira asteroko lehian. Horietatik zortzik erosketa txartela jaso dute, eta batek landetxe batera

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE
Aripa eta osagarriak

Orbe Kardinala plaza 6
Ermua, Bizkaia

679 359 337

mediterranea_vintage

Bitsi denda Tailer propioa Etojar denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

Son Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Asteegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g - 9430 10527

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

TALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGUAK 943 030 299**



Ikasketa bidaiia Lanzarotera egin zuten DBHko 4. mailako ikasleek

Martxoaren 27an Ermua BHIko DBHko 4. mailako ikasleok Lanzarotera joan ginen bost egun igarotzera. Ekintza ugaritan parte hartu genuen: gameluan ibilaldia, katamaranean egun pasa, beste hainbat leku bisitatu, gauez parrandak... Baina, dudarik gabe, bidaiako onena gure artean izan genuen giroa izan zen. Ikaragarria! Pena handiz bueltatu ginen Ermura. Gure bizitzako bidaiarik onena izan da, ahaztezina!

Santimamiñera irteera

Aste Santuko oportretatik bueltan, penak arintzeko, DBHko 1. mailako ikasleok Santimamiñeko kobazulora irteera egin genuen, historiaurreko aztarnak bertatik bertara ezagutzeko. Hara non eta San Mames ermitan egin genuen lehenengo geldialdia, ikasleek segituan egin zuten futbolarekin lotura. Baina ez zen lotura bakarria izan, izan ere kobazuloaren lehen indusketak egin zituztenen artean, Aranzadi zegoen, "Pitxi-txi" delakoaren osaba. Marrazkien egoera dela eta, ezinezkoa izan zitzaigun irudiak ikustea, horregatik kobazuloaren sarrera ikustearekin konformatu behar izan ginen. Eguraldia eta inguru zoragarria lagun, egun ederra pasatu genuen.



Batxilergoko 2. mailakoak Salamancan

Martxoaren 29tik apirilaren 1era Ermua BHIko Batxilergoko 2. mailakook Salamancara joan ginen hango inguruak ezagutzeko asmoz. Hiriburuan bertan, hainbat eraikin ikusteko parada izan genuen, hala nola unibertsitatea, katedrala, Oskolen etxea... Baita bertako giroaz gozatzeko aukera ere. Hauez gain beste ekintza batzuk ere egin genituen: kartetan ibili eta "Humor amarillo" deritzon inguruan gozatu ederrak hartu. Baina denak du bere bukaera eta errealitatera bueltatu behar izan genuen. Egun zoragarriak izan ziren!



IMANOL ALVAREZ · Eskubaloi entrenatzailea

“Nire pasioa ogibide izatea luxua da”

Mutikotan hasi zen eskubaloian jokatzen eta entrenatzeari ekin zion gero. Hainbat talderekin aritu ostean, gaur egun nesken Bera Bera talde txapeldunaren lehen entrenatzailea da eta Espainiako Selekzioaren bigarrena.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**



Noiztik lotuta eskubaloiarekin?

Txikitatik. Hamahiru urte nituenean hasi nintzen jokatzen Teodoro Zuazua ikastetxean. Eibarko Arratera pasatu nintzen gero, eta 22-23 urterekin argi nuen entrenatzailea izan nahi nuela. Titulua atera eta talde desberdinak entrenatzen hasi nintzen: Ermuan neska txikiak, Eibarren mutil gazteak, Arrasateko beste talde bat... 1998an utzi nuen arte. Gerora, 2006an Eibartik deitu zidaten, Asobal ligako profesionalak entrenatzeko eta 2013an Bera Beratik. Urtebetera semea jaio zen eta laga egin nuen, Ermuko Errotabarri entrenatuz. 2018tik, berriz, Bera Beran nago entrenatzaile bezala. 2017an Espainiako Selekzioko gazteak entrenatzen hasi nintzen eta 2021tik Espainiako nesken lehen selekzioa.

Ze funtzio duzu bigarren entrenatzaile bezala?

Laguntza ematea. Garrantzi handiko kargua da, lehen entrenatzaileari sostengua eta aholkua eskaini behar zaio. Bera Beran ikusten dut: nik jokoaren alde batzuk ikusten ditut eta nire bigarren entrenatzaileak beste gauza batzuetan erreparratzen du. Azkenean lau begi dira. Ezinbestekoa da bi entrenatzaileok ondo konpenetratzea, begirada huts batekin besteak zer pentsatzen duen jakitzeraino. Selekzioarekin beste gauza batzuk ikusten eta ikasten ari naiz, eta polita da.

Goi maila horretan, nesken eta mutilen eskubaloian badago desberdintasunik?

Jokoan bai. Mutilek indarra daukate, baina mote-lagoak dira jokaldietan eta neskek joko azkarragoa dute, abiadura behar dutelako arerioak gainditzeko. Nik orain ikusle bezala gehiago estimatzen dut nesken eskubaloia, erakargarriagoa egiten zait.





Zer behar da gehiago: indarra, teknika...?

Dena: abiadura, teknika, erresistentzia, joko ezagutzeta, ondo jokatzeta...

Eta taldekideak jokoan sartzea, baloia askatzen jakitzea...

Bai, baina goi mailan hori lortuta dago. Hori egiten ez dakien jokalaria ez da goi mailara ailegatu. Hor talde lana da inportanteena: lehenengo "Gu" eta gero "Ni". Horiek izaten dira nire lehen hitzak udatik bueltan taldean jokari berriak sartzen direnean.

Entrenatzaile izateko ezinbestekoa da jokalaria izatea lehenago?

Niretzat ez. Jokalari bezala ibili bazara joko ezagutzen duzu eta hori barik ezin duzu entrenatzen hasi, baina batzuetan uste da jokalari ona izateak entrenatzaile ona izatea dakarrela, eta ez da horrela izaten. Oso desberdin ikusten da kirola alde batean egon edo bestean. Dena den, jokalari izateak enpatia bat ematen dizu kantxan daudenekiko, eta hori behar-beharrezkoa da.

Eskaintzen diozun dedikazioa, zure familiaren egunerokotasunean zer suposat du?

Niretzat eskubaloia pasioa da eta lortu dut horretatik bizi izatea; hori luxua da. Nesken klubarekin egunero entrenatzen dut, gero asteburuetan partidak... eta sos-

tengua behar da hori aurrera eramateko. Emazteetatik ez balitz ezin izango nuen egin: etxetik kanpo nagoen egunetan bera moldatu behar da bi seme-alabekin, ordutegi eta abarrokin. Oso zaila izango zen bera ez balego, nire sostengu nagusia da. Gainera, adinarekin galtze eta irabazte kontuak kontrolatzen ikasi dudan arren, hor daude beti: ardurra, urduritasuna eta estresa sortzen dute nahi eta nahi ez. Ikasi dut ere ni nola nagoen garrantzitsua dela, konfiantza, lasaitasuna eta serenitatea transmititu ahal izateko nire taldeko neskei. Zorte itzela da Bera Beran egotea, Estatuko klub garrantzitsuena, eta hain gertu, Donostiara egunero joan eta etorri egin behar dudan arren. Baina sikiera egunero gosaltzen eta afaltzen dut umeekin!

Ermuak beti izan du nesken eskubaloian harrobi polita. Une honetan?

Bai, orain ere. Oro har nesken parte-hartzea kirol guztietan jaisten doan arren, Ermuan eskubaloia bizirik dago: talde-piloa, kluba ondo antolatuta, maila onean...

Zer behar da herrian kirol hau sustatzeko?

Instalakuntzak egotea oso-oso garrantzitsua izan da, eta jarraitu dezatela laguntzen eta sostengua ematen, zenbat eta gehiago sustatu zaletasun handiagoa sortuko delako.

Infreñu Taberna

 Kardenal Orbe plaza
 943 174584
 www.infretaberna.com

uriarte asesores ✓
 Aholkularitza fiskala
 eta lege aholkularitza
 Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

Glorian Kioskua



Elizako hegal baten eta Santiago plazara begira, Gloria Martínez durangarrak egunkari salmentarako lekutxo bat zabaldu zeban 1958 urtian, udal eta Bizkaiko Gotzaintzaren baimen guztiekin. Waldo Canok atondu zotsan lekua eta, egunkari eta aldizkari ugariakin batera, bertan topau zeinkian umien *TBO*ak, Corin Telladon eleberritxo larrosak, Marcial Lafuente Estefanía idazlian Oestekuak, olgetarako kromuak, futbolarienak, pipak, gozokiak, afariketetarako jostailuak... Olga Olañeta alabak hartu zeban gero eta Marga Martínez lobak ondoren. Gotzaintzaren kentzeko agindua etorri zan arte, zabalik egon zan hamarkada luzietan *La Gaceta del Norte*, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, *La Voz de España*, *Deia*, *El Diario Vasco*, *Egin* edo *El Caso* periodikuak eguneroko salmenta zeken bertan.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542



JON SAEZ

Musika

"Batzuentzako zarata da beste batzuentzako gozamena dena"

Hotsak arau jakinen arabera konbinatzeko artea. Euskaltzaindiaren arabera, hori da musika. Musika, nagusientzako musika, haurrentzako musika... askotan banatu egiten ditugu. Lasaia, azkarra, dantzagarria... batzuetan zarata da batzuentzat besteentzako gozamena dena. Musika zientzia, arte edota hizkuntza unibertetsala da.

Musika dantzatzeko, gozatzeko edota festarako erabiltzen dugu askotan, baina musikak badu eragina gure garunean. Musika soinua da, soinua uhinak, eta uhinak belarrietatik garunera heltzen diren elektroestimuluak.

Erlaxatzeko eta estresa gutxitzeko erabiltzen dugu musika. Sofan eseri, ohean etzan, musika jarri eta erlaxatu. Baina horrez gain, beste hainbat onura ditu musika entzuteak: sormena eta irudimena sustatzen ditu, autoestimua hobetzen du, kontzentrazioa eta memoria garatzen ditu, lo kalitatea hobetzen du...

Haurren garapenean ere baditu onurak musika entzuteak edota musika jotzeak. Adibidez, musikak adierazpen eta komunikazioan laguntzen du, abestiek in hiztegia landu eta aberastu dezakete eta horrez gain pentsamendua, memoria edota sormena ere landu daiteke. Musika erabiliaz, dantza egin dezakegu, oreka, koordinazioa, gorputzaren ezagutza... landuz.

Musika jotzeak ere haurraren arlo soziala aberastu dezake. Taldean musika jotzean elkarrekiko interakzio, kohesio, errespetu eta kolaborazioa landu daiteke. Instrumentuak jotzean, gorputzaren koordinazioa lantzen da, eta era berean hauen melodia eta bibrazioek, gorputza erlaxatzeko eta aktibatze gaitasuna dute.

Baina musika gozatzeko ere bada. Nota bat bestearen atzetik jarri, 564 nota batu eta musika sortuko dugu. Lasai lasai etxean entzuteko, itsasoari begira egoteko, mendian gora ibiltzeko edota edozein herriko jaietan dantzatzeko.

IRATXE ODRIOZOLA SAMPER

Hiru anai-arreben artean erdikoa, 35 urte ditu eta medikua da.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Nahiko polita orokorrean, oso alai. Familiako gauzak eta oporrak gogoratzen ditut gehienbat.

Eta gaztaroa?

Parranda garai horren hasiera oso polita izan zela gogoratzen dut.

Zer irakatsi dizute gurasoek?

Batez ere lan egiten, ahalegina egiten eta kariñoa izaten.

Umetan zer izan nahi zenuen?

Medikua izan nahi nuen.

Eta nahi zenuen hori ikasi duzu azkenean...

Bai, hala da.

Non egiten duzu lana?

Mendaroko larrialdian.

Ez da erreza izango, mugimendu asko...

Hala da, baina gustatzen zait ere lan dinamikoa izatea.

Zer da lanean gehien estimatzen

duzuna?

Bertako lantaldea eta bertara hurbiltzen den jendea. Gehienetan oso jatorrak izaten dira, lantzean behin norbait halakoa ez izan arren.

Eta gutxien?

Ermuko jendea, ezagutzen dudan jendea artatu. Zaila izaten da askotan.

Aisialdian zer egiten duzu?

Dantza, yoga, mendira joan eta bizikletan ibiltzen naiz.

Kirolen baten jarraitzailea zara?

Ez, jarraitzailea ez.

Nora egingo zenuke bidaia bat?

Aurten Vietnamera joatea daukat pentsatua. Gustatzen zait urtero bidaia luzeren bat egitea.

Zein musika mota gustatzen zaizu?

Ba nire *playlist*ean denetik dezakezu.

Irakurtzea, zinea edota telebista



ikustea gogoko duzu?

Irakurtzea gustatzen zait, baina nahi baino gutxiago egiten dut. Zinera ere gero eta gutxiago joaten

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELLETAN
BIZKAIKO
TXAPELDUNA
PROIEKTU 5 - 943170565
ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL Y BASES DE DATOS
ORDENADA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT
ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-entrepresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bidez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.
www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Zuri egokitzen den odontologia
La odontologia que se adapta a ti
SAN PELAYO
Dpto. QUATZ GARICA ARREGUI
PADI
Programa
Apoyo Dental
Infantil
Gabinete Vicio
943 17 04 04
info@odontologiasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48100 Ermua (Bizkaia)

naiz, telesailak ikusten ditut.

Gustukoen duzun janaria?

Patata-tortilla.

Akats bat?

Perfekzionismoa?

Bertute bat?

Perfekzionismoa ere esango nuke.

Baita autoexigentzia agian, lanak aurrera ateratzeko.

“Estimaten dut espazioa behar dudanean, hori errespetatzea; eta atentzioa behar dudanean, hor egotea”

Zer irakatsi dizu bizitzak?

Gertuko jendea zaindu egin behar dela.

Zer da egunero kale egin gabe egi- ten duzun hori?

Gurasoekin hitz egin.

Zer eskatzen diozu lagun bati?

Espazioa behar dudanean, hori errespetatzea; eta atentzioa behar dudanean, hor egotea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Nagikeriak ateratzen nau nire onetik.

Zerk eragiten dizu barrea?

Txiste txarrak gustatzen zaizkit.

Erraz haserretzen zara?

Urteekin gero eta gutxiago nik uste.

Puntuala zara?

Ez.

Zerbait egin ez izanaren pena duzu?

Bidaiaren batean denbora gehia-

go ematea, bidaiaren bat luzatzea, alegia.

Askotan zaila izaten da egondako lekuetara itzultzea, ezta?

Bai, hori da.

Zer miresten duzu pertsona baten gain?

Momentu bakoitzean zer esan jakitea.

Teknologia berriak gustuko dituzu?

Bai.

Zein da hartu duzun erabakirik zailena?

Lanez aldatzea. Gerora erreza izan zen, baina hasiera ez.

Berriro jaioko bazina, zer egingo zenuke?


Uste dut dantzari denbora gehiago eskainiko niola, benetan gustatzen zait-eta. Horren harira zerbait gehiago garatuko nuke.

OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA



Goienkale 12 *Ile-apaindegi bat biko gehiago!!*
943 17 28 09

 Egokitutako burua narbitzeko konketa



Probaleku z/g (ERMUA)
Pintxoak
Razioak
Kaxolak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
699 292 043
636 549 154




Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukudaleuskaltegia@gmail.com



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44



NEREA INIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

1953

E R M U A

Tonbolako laguntzaileak Cinema Ermuako sarreran, hormari lotuta dagoen kartelak erakusten duen bezala. Ezkerretik eskumara begiruta, tente Ana Mari Barajuen, Felisa Urreta, Esther Azkarate, Juanita Onandia eta Julita Zenarruzabeitia. Jezarrita Juanita Arana, Mari Carmen Onandia, Martina Zuazua eta Pilar Bilbao.



2003

M A L L A B I A

Argazki honetan Aitor Elordi Txakartegi Mallabiko txapelduna agertzen da, bere aittitte Paulokin.



IRAGARKI LABURRAK

Matematikako, Fisikako eta Kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 68 36 55.

EHUko Fisikako ikasleak eskola partikularrak ematen ditu: DBHko Matematika, Fisika eta Kimika ☎ 626514969

Pintura/eskultura estudioa konpartitzeko pertsona bat bilatzen ari gara. Ermuko Komentukua kalean ☎ 688695331

Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Ermua inguruan ☎ 688642761



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Maiatzaren 19a.**



Apirilaren 29an
Etxeko sorginaren lehenengo urtebetetzea! Zorionak **Maia!** Patxito potolo bat familia guztiaren partez. Maite zaitugu, bitxito!



Apirilaren 25ean
Zorionak **Danel** zure bigarren urtebetetzean aitite eta amamaren partez. Jarraitu hain polita eta alaia izaten!



Apirilaren 25ean
Zorionak **Naia** polita zure 8. urtebetetzean! Egun ederra opa dizugu! Askok gozatu familia eta lagunekin! Askok maite zaitugu! Muxu handi bat aita eta amaren partez!



Maiatzaren 1ean
Zorionak **Ane**, 8 urte, neska handi!! Gozatu eguna eta jarraitxu zaren modukoa izaten. Patxo erraldoi bat danon partez.



Apirilaren 12an
Zorionak **Nahia!** Zortzi kandela zure pasteltxoan, zu bai neska handixa! Gozatu zure egunaz, txapelduna! Patxo eta besarkada erraldoi bat, Oihanen partez bereziki! AMZ

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casas de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemord Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

aral@aral97.com | Pol.Goitondo-Goilhoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

nitida
T.943176075

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ZINEA

Hilak 1:

“Crónica de un amor efímero”

Hilaren 6tik 8ra:

“De Capercucita a loba” + “Sí, quiero... o no”

Hilaren 13tik 15era:

“Air” + “En temporada baja”

Hilaren 20tik 22ra:

“Fatum” + “Noviembre”

Hilaren 27tik 29ra:

“20.000 especies de abejas” + “Asedio”

Ermua Antzokian. Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 4:

“Conspiración en El Cairo”

Hilak 11:

“Sisu”

Hilak 18:

“Plan 75”

Hilak 25:

“Mi crimen”

Ermua Antzokian. 20:30ean.

HAURRENTZAKO

ZINEA

Hilak 7:

“Super Mario Bros. La película”

Hilak 14:

“Basoaren zaindaria”

Hilak 21:

“Hanna y los monstruos”

Hilak 28:

“El incidente alienígena del pequeño Allan”

Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 12:

Julen. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10 €.

Hilak 12:

Vértigo Rock.

18:00etan: Kalejira elektrotzarangarekin.

21:00etan: Kontzertua Bichorraro abestariarekin eta Waah! taldearekin. Orbe kardinalaren plazan.



Hilak 13:

Vértigo Rock: Alboka Musika Eskola, Ktulu, Asgart, Yugular, Brothers Till We Die, Adre-

nalized, Bones of Minerva, Shöck, Storbais, Orihen, Eknocio, Makis 37, Pain Apple, eta Indabak. 15:50etik aurrera. Betiondoko aparkalekuan.

ANTZERKIA

Hilak 5:

“Famila sarekada”, Vaivén Teatroaren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10 €.



Hilak 19:

“Juicios sin prejuicios”, Banarte antzerki taldearen eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 5 €.

ERAKUSKETA

Hilaren 2tik 29ra:

Margo erakusketa: Mugar-tea taldearen lanak. Ermuko dendeetako erakusleihatuan.

UMEENTZAKO

EKITALDIAK

Hilak 6:

Jolasaren Nazioarteko Eguna: hainbat ekitaldi. 11:30etik aurrera. Orbe kardinalaren eta Martxoaren 8a plazetan.

Hilak 14:

Margo tailerra. 11:00etatik 14:00etara. Orbe kardinalaren plazan.

BESTELAKOAK

Hilak 6:

Gaua irekia: hainbat ekitaldi. 20:00etatik aurrera.

Hilak 20:

Musika eta olerkiaren errezitaldia: León Feliperen olerkiak Udal liburutegiko olerkiaren tailerraren eskutik. 18:00etan. Martxoaren 8a plazan.

Hilaren 15etik 21era:

Galiziako Letreei buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Orbe kardinalaren plazan eta Galiziako zentroan.

Hilak 25:

Berto jaialdia. Ermuko ikasteetxetako ikasleak. 17:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera doan.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Zeharbatua 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412


PRO
arraindegia

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
Valle
Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS
- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

ETXETRESNAK
Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA
ELECTRICIDAD
BETA^{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
· Proiektuak
· Instalazioak
· Erreformak
· Berokuntza
· Gaueko tarifa
· Erradiadore elektrikoak
Diputazioa 11, behea
ERMUA
943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



EGIN

AURREMATRIKULA!

Aukerarik onena, etorkizuna duena



ArmeriaEskola^X

